

Irudian, Joar Najib
poeta herrikoia.

Palestinako bertsolariak

Haddayeh

Poeta herrikoiak

Konfuzio Txinako filosofo handiak esana utzi zuen, “herri bateko kultura ezagutu nahi baduzu, lehenik eta behin, herri horretako ahozko tradizioa, edo poesia herrikoa, ezagutu beharra daukazu”. Alegia, eta interpretazio interesatu bat eginez, pentsa daitekeela, kultura bat bizi den lekuan –eta kultura bat dagoen lekuan herri bat dago–, badela bertsolari bat. Esan nahi da, herri orok baduela bere bertsolaria, eta ez Euskal Herriak bakarrik.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Txomin Txueka

PERNANDO AMEZKETARRA baino lehen ere izango zen norbait. Duela zazpiehun urte, adibidez, Granadan, eta ez Errezilgo baserrian, baizik eta Andaluziako Granadan, al-Andalusen, arabiarrek egon ziren, eta orduan entzuten omen ziren gizon batzuk arabieraz, kantuan, inprobisatzen. Ordukoa da arabiar historiak jaso duen lehen poeta herrikoia ezaguna: Gben Gazman, lehen haddayeh, arabiar bertsogintzaren aita. Baina Mahoma urte batzuk lehenago bezala, kultura ere lur santurantz hurbiltzen joan zen Espainiatik ihesi, eta bidean, poeta herrikoien hazi batzuk erori ziren Marokon, Tunisian, Egipton, eta beste herri arabiar askotan. Urteak pasatu eta gero, ikus daiteke, uztarik oparoena Palestinan eman dutela.

Herriaren ahotsa

Noh Ibrahim Haifakoa, Shehade, El Jalamawi... Poeta herrikoia palestinar asko izan dira, eta onak, ulertzen dutenek diotenez. Herriaren ahotsa omen da poeta herrikoia, eta herri isilduak eta sufrituak are gehiago gurtzen du bere ahotsa

lau haizetara zabaltzen duena. Horregatik da, agian, inprobisazioaren tradizioa errotuagoa palestinarren artean. Sirian ere badira, eta Libanon ere bai, eta pixka bat gehiago miatuz gero azalduko dira berriak. Baina arabiarren artean ezagunenak palestinarrek dira. Noh Ibrahim adibidez. Poeta herrikoia iraultzailea esaten zioten, Haifan jaioa 1936an, 1948ko Nakba, desastrea arabieraz –Israelgo Estatua aldarrikatu zen urtea–, bere larruan ezagutu zuen, eta min horri kantatu zion sarri. Baina ez Ibrahim bakarrik, XX. mendeko poeta herrikoia gehienak izan dira hitzaren gudariak, minaren kantariak. Eta maitatuak. Gaur egun ere, ezkontza gehienetan ikusiko da, eta manifestaldi bukaeretan zer esanik ez, poeta herrikoia bat herriari kantuan. Batez ere Palestinako iparraldean, Jenin inguruan, Nabulusen, Tulkaremen, edo Kalkilian. Eta baita Galileako eskualdean ere, Libano eta Siriako mugamugan, munduak Israel deitzen dion Palestinako lur apartatuan.

Baina Israelen okupazioak herri oso bat zauritzen du, eta baita herriko kultura ere. Poeta herrikoia, batez ere bigarren intifadaz geroztik, askotan egoten dira plazara ezin joanez, eta etxeko bakardadean kantatzen du bertsolariak, bertsolari tristeak. Lehenago Jordaniara, Libanora, Siriara, Kuwaitera eta beste herrialde arabiarretara maiz joaten ziren poeta herrikoia palestinar sonatuenak lekuan lekuko bertsolariekin kantatzera. Aspaldion, israeldarren kontrolak oso gutxitan uzten diete kanpora ateratzen, eta Jenin inguruko ehun bat bertsolariek Jenin inguruan kantatu behar dute. Mousa Hafez bakarrik da –askok onentzat jotzen duena–, israeldar herritartasunaren jabe denez, Palestina historiko osoan ibiltzen dena kantuan. ■

PHOTO © TXOMIN TXUEKA



Shaban Muthana, bertsolaria

«Esanahiak, errimak eta ahotsak dute garrantzia»

Shaban Muthana Jenineko poeta herrikoa da, afizioz eta ofizioz inprobisatzailea. “Ez naiz ni onena” umiltzen du ahotsa, baina “bai” aitortu du apal, 1996an jokatu zen Palestinako poeta herrikoien txapelketa, berak irabazi zuela.

Guk adineko jendea ikusi dugu, berrogei urtetik gorakoak denak, baina ba al daude poeta herriko gazteak?

Bai, badira. Poeta herriko gazteena nire lagun baten semea da, zortzi urte ditu, eta dagoeneko kantatzen du. Ez du aitak bezala kantatzen baina ikasiko du. Nire herrixkan, Jeninen iparraldean, badira hamar haur kantatzen dutenak, beste herri batean ere sekulako jende pila dago kantatzen duena. Batez ere Palestina iparraldean baitago tradizioa errotuen. Eta Belebenera joaten garenean iruditzen zaie zerbait magikoa egiten ari garela, sorginkeria bat, ez dutelako hainbesteko tradizioirik.

Nolako ekitaldietan kantatzen duzue?

Ezkontzetan kantatzen dugu batez ere, baina poeta herrikoien ikuskizunak ere izaten dira, eta manifestaldietan ere aritzen gara. Palestina osoan kantatzen dugu, eta Jordaniara ere joaten gara, eta beste herrialdetara, palestinarrak dauden lekuetara batez ere.

Zenbat luzeko saioak egiten dituzue?


Batzuetan hiru orduan kantatzen dugu, bestetan ordubete baino ez. Ezkontza batzuetan bi

PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Poeta herrikoia nola ikusten du jendeak, herritar xume bezala, poeta handi bezala, politikari bezala, intelektual bezala...?

Tira, esan nezake denetik dela pixka bat, poeta herrikoa bada politikaria, bada poeta, eta baita intelektuala ere. Baina ez dago horregatik herriarengandik urrun, alderantziz, poeta herrikoa herriaren mailan dago. Oso pertsona simple bezala ikusia da, herriak ulertu egiten baitu zer esaten duen, bere hizkera herriarena bezalakoa delako. Horregatik dago hurbil.

Babeslea: Irizar



◉ Palestinako taupadak

egunetan jarraian kantatzen dugu: lehenengo gauean, henna deitzen dioten ospakizunean, pare bat orduz edo, eta biharamunean, egunez, ezkongaiak kalean desfilatzen duten bitartean gu beraiekin batera joaten gara bertsoak kantatuz. Ordubete pasatzen dugu normalean, baina kalea luzea bada are gehiago.

Zenbat saio izaten dituzu urtean?

Nik ehun bat saio edo egingo ditut. Baina batez ere hiru edo lau hilabetetan kontzentratzen dira saio horiek. Uda izaten da kantatzeko garaia, hasi ekainean, uztaila, abuztua, eta irailera arte, lau hilabete horietan biltzen da saio gehien, ezkontzak ere orduan egiten direlako.

A capella kantatzen duzue, eta nahiko melodia erritmikoetan. Baina zer da zuen bertsoaren barruan gehien baloratzen dena? Zeri jartzen dio jendeak arretea batez ere?

Errimari, esanahiari, eta nahi edo ez ahotsari. Niretzat garrantzitsuena esanahia da, ondoren errima, eta azkenik ahotsa. Baina denak dira beharrezkoak. Alferrrik da esatea “ni poeta herrikoi ona naiz eta oso bertso sakonak idazten ditut paperean”, gero hori kantatzeko ahotsik ez baldin baduzu. Eta alderantziz ere berdin-berdin gertatzen da, alferrrik da sekulako ahotsa eduki eta oso ongi kantatzea botatzen duzunak ez baldin badu esanahirik, horrek ez du balio. Dena behar da.

Nondik hasten zara pentsatzen kantatuko duzuna?

Ez dut pentsatzen zehatz-mehatz honekin hasiko naiz, gero hura esango dut, eta azkenean harekin bukatu. Gehiago da hasi eta segitu eta bidean joan sortzen.

Baina bost segundo pasatzen dituzu hasi aurretik...

Bost segundo asko da! Gehiegi! Bi segundotan pentsatu behar da, eta hasi. Bi segundo horietan zer pentsatzen duan? Gaia aukeratzen dut, zeri buruz hasiko naizen kantatzen, eta gero hasi, ea zer ateratzen den. Eta nire kantu-kidea hasten baldin bada hari entzungo diot, eta entzun bitartean erantzuna pentsatu. Adibidez herrixkari buruz kantatzen baldin badu, eta herrixkan bizitzearen onurak, nik hiriaren alde nola egin pentsatuko dut. Baina gaiak orotarikoak izan daitezke. Kanta diezaiokegu herriari, esperantzari, neska ilehoriei edo belzaranei.

Umorearen bila jotzen duzue gehienbat?

Ez umorearen bila bakarrik, denetik. Poeta herrikoi egoera batean jartzen den pertsona da, eta orduan egin behar du egoerak nahi

duena, eta egoera horretan berak nahi duena, batzuetan dramatiko, bestetan komiko.

Normalean bi izaten zarete?

Bai, gehienetan bi kantu-lagun izaten gara, gerta daiteke lau izatea ere, baina onena birekin izaten da.

Txapelketa ere egin zenuten 1996an...

Bai, 1996an egin genuen Palestinako poeta herrikoien lehenengo txapelketa, eta zoritxarrez azkena ere bai. Ordutik hona gure egoerak okerrera egin baitu, eta gaur egun oso egoera zailean bizi gara, leku ezberdinetakoak ezin elkaturik. Eta ezinezkoa da txapelketa egitea. Baina 1996an egin genuen Palestina osoko poeta herrikoiek parte hartu zuten txapelketa. Izen ematea librea zen eta guztira hirurogei bat aurkeztu ginen. Hiru egunetan jokatu zen.

Nola epaitzen zen?

Arabiar linguistikan adituak diren zazpi pertsona ziren epaile, batzuk Nabalusekoak, besteak Bir Zeiteko unibertsitatekoak, doktoreak eta. Zazpi epaileen irizpidea bertsoa hiru erataria neurtzea zen: neurtzen zuten lehenik esanahia,

gero errima, eta gero ahotsa. Horren arabera, adibidez batek zazpi puntu emango zizkidan niri, beste batek bederatzi, eta beste batek zortzi. Eta puntu horien guztien batura egiten zen gero ikusteko nor pasatzen zen aurrera eta nor ez. Hamarren gainean epaitzen zen bertso bakoitza.

“Bost segundo asko da! Bi segundoz pentsatu behar da, eta hasi. Gaia aukeratzen dut, zeri buruz hasiko naizen kantatzen, eta gero hasi, ea zer ateratzen den”

Eta zuk irabazi...

Bai, baina ez zen batere erraza izan. Jokatu ziren finalerdiak, finala, eta azken txanpan Nabaluseko bat eta ni gelditu ginen. Azkenean nik irabazi nuen. Laurehun pertsona zeuden ikusten. Baina esan dizut, ez zen erraza izan, oso poeta onak zeuden.

Baina Mousa Hafez ez omen zen aurkeztu.

Ez, egia da, poeta herrikoirik onena Mousa Hafez da, bera da saio gehien egiten dituen, berrehun bat jardunaldi izaten ditu, eta ez zen aurkeztu txapelketara. Ez zuen parte hartu nahi izan.

Bukatzeko, okupazio egoerak zenbat eragiten dio poeta herrikoien jardunari?

Asko eragiten dio, hemen dena lotua dago. Orain oso egoera zaila bizi dugu. Alde batetik ez dugu mugitzeko askatasunik, eta gainera oso egoera ekonomiko txarrean gaude. Gu profesionalak gara, ezkontzetara joan eta kantatzearen truke dirua irabazten dugu, beraz egoera ekonomikoa txarra bada horrek gu ere asko hunkitzen gaitu. Lehen baino gutxiago kantatzen dugu. ■



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Bassam Salhi, koalizio gobernuko Kultura ministro-ohia

«Nire lana ez da kultura ideologikoa sustatzea»

Elot herrixkakoa da, 1948an Israelek okupatu zuen azken hiri palestinarrekoa. NBEen banaketa lerroaren arabera, Palestinako estatuaren barruan gelditu zen, baina israeldarrek okupatu egin zuten, konfiskatu, eta orain Tel Aviveko Ben Gourion aireportua eraikia dute Salhiren arbasoen lurretan. Ondorioz, Bassam, Alamari errefuxiatu kanpamentuan jaio zen, Ramala ondoan. Lehen aldiz hamahiru urte zituenean atxilotu zuten, Israeleko soldaduen kontra harriak botatzen ari zelako. Gero Soziologia Politikoa ikasi zuen, eta Alderdi Komunistakoa da. Mahmoud Abbasek desegin berri duen koalizio gobernuan, Kultura ministroa zen.

Ministerio ezberdin asko daude gobernuan. Bakoitzaren garrantzia eskala baten arabera sailkatuko bagenu, non kokatuko litzateke Kulturakoa?

Uste dut garrantzitsuenetakoa dela. Palestinako politikari askok pentsatzen dute Kultura Ministerioa marjinala dela, ez dela garrantzitsua, baina ez. Gure bizitza politiko eta sozialean oso garrantzitsua da kultura. Kultura da palestinarren bizitza gehien babestu duena, batez ere 1948a eta Nakba eta gero, harreman kulturek lotu gaituzte. Palestinarrak bere lurra galdu zuen, bere bizitza demografikoa, bizitza ekonomikoa, eta leku askotara zabaldu zen. Urruntasun hartan amets batek egiten zuen denen arteko batasuna, eta amets horiek ekintza kulturalen bidez adierazi dira.

Zenbateko laguntza ematen dio Palestinako Gobernuak kulturari?

Kulturari ematen zaion aurrekontua oso urria da. Gure misioetako bat hori handitzea da, eta espero dut azkenean aurrekontu orokorraren %1 bideratuko dugula kulturara, baina oraingoz hein horretatik oso urrun gaude. Guk 3,5 milioi dolarreko aurrekontua dugu urtean eta hori ez da ezer. Zenbait Gobernu Kanpoko Erakundek ere aurrekontu hori dute. Gainera, arazoa da aurrekontu horren zati handi bat langileen soldatetan joaten dela, eta azkenean 150.000 dolar baino ez zaizkigu gelditzen kultur ekintzetan xahutzeko. Beraz, gure helburua kulturarako iturri bereziak aurkitzea da, baita sektore pribatuan ere.

Eta aurrekontu txiki horrekin nolako lana egitea pentsatzen duzue?

Hilabete honetan bilera handi bat antolatzen saiatzen ari gara kultur politika zehazteko. Beraz, ezta-

● Palestinako taupadak

baidatu beharko dugu kultura arloko aktore guz-
tiekin, baina hiru puntu nagusiren inguruan zen-
tratuko gara: alde batetik, folklore tradizionala eta
kultur bideak babestea eta garatzea. Hori oso
garrantzitsua da, eta ez da kultura kontua bakarrik,
aferra nazionala da, gure folklorea eta gure tradi-
zioa lapurtzen saiatzen ari direlako. Beste aldetik,
talentua nola garatuko dugun eta ekoizpen kultu-
rala nola bultzatuko pentsatu beharra dago. Eta
azkenik, nola lortu kooperazio handiagoa kultur
taldeen artean. Horretarako azpiegitura handia
behar dugu. Uste dugu sor ditzakegula zenbait
talde nazional. Haurren antzerki talde batekin hasi
beharko genuke, eta uste dut udara honetan ikus-
teko moduan izango garela. Hori Kultura Ministe-
rioak sostengatua izanen da. Bestalde, haurrentzat
egokitutako liburuak edukitzea ere nahiko genuke.

**Guk beti entzuten dugu Mahmoud Darwishen izena,
baina ez da aurpegi bakarra, zenbat izen gehiago
ditu Kultura palestinarrak?**

Jakina, Darwish eta bere poemak dira palestinarrak
herriaren isla. Oso harro gaude kanpokoek Dar-
wishengana jotzen dutenean, baina Palestinako
kultura ez da Darwishera mugatzen. Izen gehiago
ere aurkitu daitezke. Abu Salma, Samee al-Qasem,
Emil Habibi bestela, Palestinako idazle ezagune-
netarikoak, eta sonatua arabiar idazleen artean ere.
Saher ere bai, ironiazko nobelista, oso idazle
garrantzitsua.

Ba al duzu irakurtzeko denborarik?

Ez askorik jakina, baina batzuetan irakurtzen dut.
Kartzelan egona naiz behin baino gehiagotan eta
hura leku ona da irakurtzeko.

**Palestinako kultura bat dago, eta Palestinako kultu-
rak daude?**

Biak dira egiak, leku askotan bizi baikara. Horren
eraginez gure kultura modernoagoa da leku baka-
rrean sedentario dagoen kultura baino. Baina
nahiz eta lur askotan sakabanatuak egon, palesti-
narrak kultura nortasun bakarrekoa bezala lantzen
dute. Eta borrokarako ere oso erreminta garrant-
zitsua da kultura.

**Komunista zara, zenbateko indarra du komunismo-
ak Palestinan?**

1991n Alderdi Komunistak bere izena eta bere
programa aldatu zituen Palestinan, eta uste dut
ordutik hona ezkerreko alderdiek ez dutela beren
garairik onena bizi. Uste dut ezkertiarrok Palesti-
nan ezkerrek duen bidez argitasun gehiago eman
beharra dugula. Sobietar Batasunean eta beste
leku batzuetan gertatutakoa adibide ona zen era-
kusteko sozialismoak ez duela bide bat bakarrik.
Eta esperientzia berri garrantzitsuak ari dira gerta-
tzen Hego Amerikan, adibidez Chavez Venezue-
lan, edo Kuban, eta Palestinan berriz ere pentsatu
behar dugu ezkertiar bezala zein diren ildo nagu-
siak, bai herriari dagokionez, bai demokraziaz,
bide sozialez, erlijioaren eta demokraziaren harre-
manaz, emakumeen eskubideez.

Zer da Palestinan ezkertiar izatea?

Orain, zoritxarrez ezkertiarren figura nahasia
dago. Nire ustez ezkertiar izatea ez da kontzeptu
bat, pertsonala da, baina ezkertiarren arteko ezta-
baiden ondoren aurkitu beharko dugu galdera
horren erantzuna. Berdin gertatzen zaie Hamasi
eta Al Fatahi ere. Palestinako bide ekonomikoari
buruz, ez dago garbi zein den Hamasen erantzuna,
zein Al Fatarena, eta talde ezkertiarrek ere ez
dute erantzun propiorik. Hori eztabaidatu egin
behar dugu. Beraz zure galdera oso garrantzitsua
da ezkertiarrentzat, ez delako aski orain eraikia
dugun pentsamendua.

Eta zer da kulturaren ezkerrekoa izatea?

Uste dut ministro bezala nire lana ez dela kultura
ideologiko bat sustatzea. Baina orokorrean nik
sinesten dudana kulturaren punturik garrantzitsu-
ena jakintza da. Nola lor genezakeen jakintza nor-
berak pentsatuz eta norberak galderak eginez.
Bide horretatik uste dut kultura progresibo bat
sortuko dugula. Uste baitut jakintza balore handia
dela eta horrek erakusten duela aurrera egiteko
bidea nondik datorren. ■

<http://www.argia.com/palestina>
kanalean, bidaiako ikus-entzunezkoak.

Aurtengoan ere, Tourreko tropela Mediterraneora!

Abian da tropela.net:
tourra, sarean, euskaraz, eta sariekkin...

Izen ematea dohainik.

Izena emateko epea: larunbata, uztaillak 7, 15:00tan

